

DOMINIQUE

ARTZAIN XIBEROTAR BAT NEVADAN

Robert Laxalt




Itzultzailea: Xabier Mendiguren

erdal literatura-elaberria


ELKAR

Hiztegitxo


Hobeto irakurtzen laguntzeko




| | | |
|--|--|-------|
| abadagune 'une egokia, egokiera' | «Lehen gaueko afaria abagadune berezi batek eskatzen dituen zertzelada guztiekin egin zen...» | (111) |
| abaro 'aterpea, estalpea' | «...eta ardiak abaroan zeudean behean,jautadan.» | (172) |
| abegikor 'xeratsua, abegitsua' | «Hala ere, abegikorra zen eta berehala aurkitu ginen areto batean bildurik eskuetan baso bana genuela.» | (187) |
| adeitasun 'gizalegea, gizabidea' | «...bere adeitasuna eskertu zion, alde egiteko ordua zela gaineratuz.» | (160) |
| adiguritsu 'jakingura, jakinahia' | « Adiguritsu jarraitu zuten entzun izan ez balute bezala edota esan berri zuena harira ez baletor bezala.» | (144) |
| aditu 'ulertu, endelegatu' | «Bazirudien zerbait finkatu nahi zuela buruan, aditzeko zaila zen zerbait ulertu nahi zuela.» | (102) |
| agirika 'errieta, haserraldia' | «Gero ohartu zen txisteaz eta nigana itzuli zen agirika biguinez buruari eraginka...» | (108) |
| agondu 'zutitu, goititu' | «John ukondo baten gainean agondu zen.» | (76) |
| aharrausi 'aho-zabaltzea' | «Nanettek eskua eraman zuen ahora aharrausi bat ezkutatzeko...» | (106) |
| ahiturik 'indar gabe, unaturik' | «Amaitu zuen bere edaria eta ahiturik balego bezala arnasa sakon hartu zuen» | (108) |
| ahulki 'indarge, makal' | « Ahulki , haizeak pinu artean egiten zuen zurrumurrak garraiatuak...» | (30) |
| alderrai 'ibiltari, batetik bestera' | «...eta haietako asko ikusi nituen nik kanpamenduz kanpamendu alderrai , zegoen tokian lan bila...» | (118) |
| alehunka 'kontaezinezko' | «...bere alehunka pardeletako bat ere bere maletan ezartzerik...» | (73) |
| altzari 'errediza, mueblea' | «...bidaia egiteko asmoa zutela azaldu zuten altzari eginberriak eta lihozko lan batzuk ere eraman behar zituztela gaineratuz...» | (186) |
| apetatsu 'kapritxosoa, keriatua' | «...urak errainu apetatsua sortzen zituen...» | (194) |
| arakagaitz 'adierazkorra ez dena' | «...aurpegi arakagaitz batekin aitak bere patrikatik pasaportea eta karteraren pardel gizona atera...» | (80) |
| arazeriatsu 'arduratsua, xehetasunez betea' | «...garai batean hotel baten harrotasuna izan ziren apaindura arazeriatsuz hornituriko marko eta pilareak...» | (27) |
| arrago 'metalak urtzeko ontzia' | «...haien deiturek ez dute ezer esan nahi izango eta arrago -lana buruturik geratuko da.» | (83) |
| arrakala 'pitzadura, arraila, bitartea' | «Gogoan dut hormako arrakala hori, ia pertsona baten aurpegia dirudien hori» | (159) |
| artemisi 'landare mota' | «... artemisi suaren eta kafeontzi belztuaren gainean pikotxean jarrita...» | (13) |
| atzeman 'harrapatu' | «Hala ere, gure autoaren argiek irudi iheskorrak atzematen zituzten...» | (121) |
| ausardikeria 'gehiegizko adorea edo kementa' | «...laster igarri nion ausardikeriak ez zuela hartan inolako parterik izan .» | (19) |
| ausiabartza 'nahastea, deskalabrua, porrota' | «...29ko ausiabartza ekonomikoa gertatu zen...» | (51) |
| auzi 'asuntoa, afera' | «Baina zera gertatu zen, berak ez zuela ezer entzun nahi auziaz ...» | (113) |
| azienda 'abelgorriak,basaganaduak' | «Nik azienda eta ibiltzeko sailak nahi nituen...» | (47) |




| | | |
|---|---|-------|
| bare 'trankila, lasaia' | «Hegaldia ez zen izan oso barea .» | (93) |
| begiespen 'begirada' | «Gero gelatik irteten zenean, elkarri begira geratzen ginen begiespen mutu eta etsian.» | (32) |
| behelur 'behealdeko lurra' | «...frantses Pirinioetako behelur leunetan...» | (21) |
| beirin 'leiarra, kristala' | «...denda berak eta izen berak ere bai beirinetan .» | (149) |
| bekoki 'kopeta' | «Hala ere, konturatu nintzen zimur sakonak ari zitzaizkiola nabarmentzen bekokian .» | (127) |
| bekosko 'haserre aurpegia, beltzuria' | «Aitak bekoskoa jarri zuen, gero ez baita samar ekin zion...» | (114) |
| bezatu 'hezi, etxekotu' | «...zaldiak bezatzen zebilen garaian...» | (11) |
| bisuts 'haize eta elurrezko ekaitza' | «...aurrena beren buruak neguko bisutsen (...) aurrean makurtzen ikasia...» | (13) |
| bristaka 'distiraka' | «Gasezko farolak kale-ertzetan bristaka egoten zireneko garaiak ziren...» | (58) |
| bulartsutasun 'indartsu itxura' | «...borroka egiten zuten gizonen bulartsutasun miresgarria...» | (82) |
| burko 'burukoa , kuxina' | «...azafatak alde batera eta bestera hasi ziren pasaiariantzako burkotxoekin , eta aitak altzoan gorde zuen berea gerorako.» | (93) |
| burusi 'estalkia, manta' | «...eta kolore biziko burusi bat zeukan belauten gainean.» | (155) |
| darda gainean 'arduratsu, arreta handiz' | «Arrebak darda gainean zebiltzan jakirik gutziagarrienak eskainka...» | (143) |
| dastatu 'probatu' | «...zuberotar artzainaren bizitza dastatzeko aukera.» | (8) |
| deblauki 'bat-batean' | «Diru pixka bat egitera bestetara ez nintzen joan —onartu zuen deblauki —.» | (124) |
| deitoratu 'pena hartu edo sentitu' | «Hamaika bider deitoratu genian egin zutena!» | (145) |
| dendu 'oreka, ekilibrioa' | «Johnek ez zuen galdu bere dendua .» | (75) |
| derrigor 'ezinbestekoa, nahitaez' | «Nahiz eta anaia guztiok izan eta derrigorrean ardiekin zerikusia zutenak gainera...» | (23) |
| desenkusa 'barkamen eskaria' | «...eta desenkusa sentituak behar izan ziren...» | (15) |
| deslilura 'atsekabea, tristura' | «...begietan nabari zitzaion deslilura berriro agertu zitzaion.» | (112) |
| deuseztaezin 'apurtezina, hautsi ezina' | «... deuseztaezina iruditu zitzaigun.» | (74) |
| dindila 'zintzilikarioa' | «...gai bereko txaparrerak, dindilekin , eta botetan ezproin zahar higatuak...» | (130) |
| diosala egin 'agurtu' | «...eta behean begiz jo gintuenean, diosala egin zigun bere makilaz.» | (31) |
| doi 'juxtu' | «John bideko bihurgenetik aurrera pasa eta astebete doira senideok izan genuen afaria goibela gertatu zen.» | (25) |
| durundatu 'oihartzuna sortu, oihartzundu' | «Handik une batzuetara beste oihu luze bat entzun zen mendiaren hegaleten barna durundatu zena...» | (199) |




| | | |
|---|--|-------|
| ebakondo 'ebakidura, moztura' | «Gainera, askok ebakondoak zituzten aurpegian.» | (86) |
| egonarri 'eroapena, patxada' | « Egonarriz eman zituen argibideak.» | (85) |
| egurats 'atmosfera' | «Udazkeneko arratsaldea zen eta soro helduen usainak betetzen zuen eguratsa » | (157) |
| egurtu 'zigortu, jipoitu' | « Egurtua zegok dagoeneko.» | (81) |
| ehundura 'oihalaren egitura, itxura' | «Eta piska batez jarraitu egin zuen oihalaren ehundura deskribatzen...» | (55) |
| elezahar 'alegia, istorioa, kondaira' | «...zergatik entzuten ziren fantasma eta agertuei buruzko elezaharrak .» | (200) |
| elkargibiztatu 'bata bestean kiribildu' | «Indak baso itzaltsuetan barna zihoazen, non adar elkargibizatuek arku bat eratzen baitzuten...» | (199) |
| eragineko 'lotura edo zerikusia duena' | «Izen ezagun eta eraginekoa zuen euskaldun bat...» | (28) |
| eraitsi 'jaitsi erazi, bota, lurreratu' | «...eta zalditik tiraka eraitsi nahi izan nuen eta ia lortu ere lortuko nuen...» | (165) |
| eratsu 'jarrera dotorean' | «...etxeko jaun gaztea zegoen eratsu irribarreka.» | (159) |
| ergel 'kirtena, tentela, papaua, leloa' | «Denek ikusia zuten eta ezagutzen zuten animalia baten kemen itsu eta ergela ...» | (81) |
| erlantz 'argitasuna, distira, dirdira' | «...beti lanpararen erlantzetik tarte batera hartzen zuen kazeta...» | (27) |
| ernegarri 'animatzekoa, bizkortzekoa' ? | «...liburu ernegarriak idatzi ditu euskal gai eta nortasunari buruz.» | (8) |
| ernegu 'amorrazioa, amorrua' | «Antza zenez, ohartu egin zuen gertaerak sortu zidan ernegua .» | (92) |
| erosotu 'egokitu, gustura kokatu' | «Tragu luze bat edan, aulkian erosotu eta jarraitu zuen.» | (107) |
| erpin 'punta, muturra' | «...pasa zuen hatzaren erpina ahotik probatzeko...» | (68) |
| erpuru 'atzamar lodia' | « Erpurua eta hatz erakuslea erabili zituen...» | (78) |
| errauts 'hautsa' | «... errauspean zeuden herrimina eta nortasun kontzientzia...» | (8) |
| erreskada 'ilada, lerroa, errenkada' | «Gure aurreko erreskadan , frantses gizen eta nabarmen samar bat zegoen...» | (91) |
| erretilu 'azpila, mazkeloa, bandeja' | «Mahaiaren gainean jakiz beteriko erretilu mordoa zegoen...» | (201) |
| erronka 'desafioa, aupada' | «...itsasoaz haraindi erronka egindako abenturaria eta fortuna egin zuena.» | (143) |
| eskalapoin 'zurezko zapata' | «...zurezko eskalapoinek zidorreko harrietan zarata ateratzen zutelarik...» | (122) |
| eskaratze 'sukaldea edo sarrerako gela' | « Eskaratzera sartzera gonbidatu gintuen.» | (123) |
| eskarmentu 'esperientzia' | «Baina bildotsa zatikatzeari ekin nionean, lagundu egin zidan, gai hartan eskarmentua zuela erakutsiz.» | (130) |
| eskerga 'itzela, neurrigabea' | «Arrokatsuen bizkar eskerga aurrekaldean agertu zitzaigun...» | (65) |




| | | |
|--|--|-------|
| eskorta 'abeltegia, ikuilua' | «Euskeraren jario gozoak betetzen zituen eskortak eta barrakoiak.» | (42) |
| eskubitur 'eskuturrekoa, ukaraikoa' | «...larruzko eskubiturak , gai bereko txaparrerak...» | (130) |
| eskuztatu 'haztatu, eskuz ukitu' | «Bularra eta besoak eskuztatu zituen...» | (37) |
| estuasu 'herstura, larritasuna' | «... Estuasu gogorrean aurkituko nintzateke apaiza naizelako izango ez balitz.» | (139) |
| euri-langar 'lanbroa, zirimiria' | «Kanpoan euri-langarra egiten zuen eta gure depresioari gaineratu zitzaion...» | (25) |
| ezarian 'ia ohartu gabe, disimulatuki' | «...eta handik piska batera ezarian bezala jaregin zion.» | (44) |
| ezbaiti 'zalantzakor, dudakor' | «Aitak bekoskoa jarri zuen, gero ezbaiti samar ekin zion...» | (114) |
| ezeroso 'disgustura' | «...izugarri ezeroso sentierazi ninduen.» | (66) |
| ezindu 'elbarria' | «Papa Pierre, aitaren laugarren arreba ezinduaren senarraren etxea...» | (153) |
| ezinobe 'hobezina' | «...harrera ezinobe a egin zion kritikak.» | (7) |
| ezproin 'ziztatzeko ziria, espuela' | «... ezproin zahar eta higatuak» | (130) |
| feldro 'ilezko ehuna' | «Hori bai, feldro a eta kapelaren inguruan zeukan xingola zabala artean berriak bezala zeuden.» | (180) |
| gaihun 'gabon' | «— Gaihun —, egin zuen diosala aitak autoaren ondotik igarotzean.» | (122) |
| gazitigu 'abisua,mezua' | «...Air Francek eman zuen gazitiga Bordelerako hegazkina ez zela irtengo biharamuna arte...» | (100) |
| gerrontze 'jantzi elastikoa' | «Larruzkoa gerrontzea , larruzko eskubitarrak...» | (130) |
| goganbehar 'susmoa, errezelua' | « Goganbehar apur batez tratatu zutela.» | (110) |
| gogara 'nahiera, xedera' | «...bere gogara jartzen zuen sutegia...» | (12) |
| gomita 'gonbitea, gonbidapena' | «...baina berak besterik gabe uko egin zion gomitari .» | (62) |
| guri 'leuna, biguna' | «...nahiz eta aita baino guriago hazitakoa izan.» | (21) |
| hasimasiak 'oinarrizko ezagupenak' | «Itzuli ondorengo lehen urteetan, ikasitako hizkuntzaren hasimasiak artean gordin zeuzkan...» | (178) |
| hasperen 'zinkuria, zizpurua' | «...buruari eragin eta gobernu-autoritatearen ixurarekin egin zuen hasperen.» | (85) |
| hazpidean egon 'hazten' | « Hazpidean geunden denbora osoan...» | (12) |
| haztatu 'eskuaz ukitu, eskuzkatu' | «Johnekin eskuetan haztatu zituen pardeletako batzuk...» | (73) |
| hede 'uhala' | «...larru gordinezko hede txirikordatuak aurki zitezkeen...» | (13) |
| hegi 'mendilepoa, malda' | «Sierra garaiaren hegian dagoen mendi-laku baten atekazaina zen.» | (25) |




| | | |
|--|--|-------|
| herbarren 'uribazterra, hirigibela' | «Granjak, herbarrenetako etxeak, Sena ibaia...» | (99) |
| herra 'gorrotoa, hegigoa' | «...eta beste batzuek herra moduko batez...» | (77) |
| higatu 'gastatu, maiztu' | «...zur leundu eta higatuarekin ...» | (13) |
| horail 'ilehoria' | «Amaren beste ahizpa, horaila eta polita, ez zen inoiz ezkondu...» | (110) |
| hozkirri 'freskoa' | «Ordurako airean zebilen arratseko lehen hozkirria ...» | (31) |
| idun 'lepoa, sama' | «Bankariek eta negozio-gizonek, idun zuri almidoiztatuekin...» | (58) |
| inarrosi 'astindu, eragin' | « Inarrosi zuen burua eta marmuka eta letaginak erakusten hasi zen.» | (18) |
| inda 'bidezidorra, bideska' | « Indak baso itzaltsuetan barna zihoazen, non adar elkargibiztatuek arku bat eratzen baitzuten...» | (199) |
| intziri 'aienea, oinaze kexua' | «Ondorengo isilunea Aurelieren intziri atsekabetuak eten zuen.» | (115) |
| inular 'iluntzea, ilunabarra' | «...harana biltzen zuen inularraren argitasun epelak harrapatu gintuen...» | (160) |
| ipurtsaltoka 'saltoka eta ostikoka' | «...gu ikustean ipurtsaltoka hasi ziren eta zarramaltzan bira eginik, ihesari eman nahi izan zioten.» | (30) |
| ipuru 'orrea, arabotea' (Zuhaitz mota) | «...dena harria zen eta milorriren batzuk begien irismenean eta bertako zuhaitz bakarrak ipuru nanoak besterik ez ziren.» | (128) |
| iraindu 'laidatu, laidetsi' | «Aitak iraindurik begiratu zidan.» | (108) |
| iratxo 'fantasma, gnomoa' | «Gure bila agertu ziren lehenak haurrak izan ziren, zidorrean behera, oinutsik, basoko iratxo txikiak bezala...» | (199) |
| iraungi 'desagertu, akabatu' | «Isiltasunean jaisten jarraitu genuen zuhaitzen artean gure atzekaldean ahotsak iraungitzen ari ziren bitartean.» | (202) |
| irazeki 'piztu, iziotu' | «...izan ere euskaldunak baitziren eta beren harrotasuna baitzuten ezkutu irazekia , inoren irainik ez onartzeko.» | (43) |
| irrigarri 'barregarria' | «...ez zela gai izango uste izaten zuen bere eginbeharra betetzeko, horrela irrigarri geratuz.» | (178) |
| iruzkin 'komentarioa, azalpena' | «Taxistak egin zuen lehen iruzkina aireporturako bidean.» | (85) |
| iruzur egin 'engainatu, atzipetu' | «...eta ez onartzeko duten arrazoia da barrenean uste dutela sorterriari iruzur egin diotela.» | (126) |
| iskintxo egin 'alboratu, baztertu' | «...jendeak haiei iskintxo egiten ziela ohartu bainuen.» | (86) |
| itzartu 'iratzarri, esnatu' | «Anaiek eta nik isiltasunezko jarrera desberdinez begiratzen genion, baina zerbait itzartzen zitzaigun begietan.» | (22) |
| izu 'ikara, beldurra' | «...bakarrik egotearen izua sentitzera, bakarrik irabazle izatearen garaitzapen basatia...» | (82) |
| jaregin 'askatu, libratu' | «Brucek jaregin nire eskuari eta zehaldoka aldapan gora ekin zion...» | (31) |
| jariakor 'solturaz, erraztasunez' | «...berak hizkuntza jariakor hitzegiten zuela esaten jarraitzen zuen.» | (179) |
| jaseko 'jatorra, nortasun sendokoa' | « Jaseko emakumea izan beharra zegoen bizimodu hura eramateko.» | (119) |




| | | |
|---|---|-------|
| kamaina 'ohantzea' | «...bere kamainan amildu zen.» | (14) |
| katuka 'katamarka' | «Tira, haien erreguak zerura iritsi bide ziren, baina nire iritzian, katuka iritsi ziren, nonbait.» | (173) |
| kikildu 'beldurtu' | «Begirada arakatzailak gora-behera, aita ez zen batere kikildu .» | (78) |
| kinka 'egoera' | «Hauxe zen kinka . Amerikan inoiz ezagutuko ez zuen sariaren unea.» | (143) |
| kuzkurtu 'makurtu, kikildu' | «...eta mugimendu-bizkortasun txundigarri harekin, kuzkurtu egin zen lehoia.» | (18) |
| lakio 'zepoa, segada' | «...bere sentimenduekin lakioa estutzen ari zitzaion neurrian.» | (45) |
| lastaira 'koltxoia, lastamarraga' | «...lonazko ohea izaten zuen adar eta zarbazko lastairarekin ...» | (12) |
| lepo egin 'hil, akatu' | «...orduan lepo egin nuen eta ipuru batetik eseki nuen odolustu zedin...» | (129) |
| lertxun 'horrikara' (Zuhaitz mota) | «...eta lertxun baten azpian jarrita zeukan bere kamaina...» | (43) |
| letagin 'betortza, betagina' | «Inarrosi zuen burua eta marmuka eta letaginak erakusten hasi zen.» | (18) |
| lokamuts 'amesgaiztoa' | «Hitzegiten ari zela, mintzoak tonu estrainioa hartzen zuen, (...) bizitzen ari zeneko lokamutsaz ohartuko bailitzan.» | (117) |
| luzanga 'luzexka' | «Gogoan izango duk beltzarana zela, begi beltzak eta aurpegi luzanga zuela.» | (67) |
| mahuka 'jantzi atala, manga' | «...haur txikiaren jarrerarekin, mahukatik tiraka eta behin eta berriz zizpuruka...» | (51) |
| maiztu 'erabiliaren erabiliaz gastatua' | «...kapelatzar beltz erdi maiztu batekin eta berritan bikainak izan behar zuten ahuntz-laruzko txaparrerekin.» | (130) |
| manex 'zuberotar ez den euskalduna' | «Ia guk bezala hitzegiten duk, manexok bezala.» | (111) |
| marraka 'marrua' | «... marraka itzaliak eta zintzarrien txilina entzun nituen.» | (202) |
| matrailezur 'masailezurra' | «Bat-batean makurtu eta txakurraren matrailezurak tinkatu nituen ez bainuen nahi arazorik...» | (132) |
| mauseari 'bidelapurra' | «...gizaki bakarra zen, mauseariez aparte, eta nola elkar ezagutzera iritsi ziren.» | (64) |
| miaketa 'arakaketa' | « Miaketa bizkor baten ondoren, gogo honez onartu nindutela senide gisa adierazi zuten.» | (110) |
| miatu 'arakatu' | «Aitak kontrolpean eduki zituen ardiak arratsalde erdira arte, John noiz itzuliko ote zen mendiak miatuz .» | (24) |
| mihise 'lihozko ehuna' | «Hedatu zuen lurrian mihise lauki garbia...» | (31) |
| milorri 'landare mota' | «Honela, egun batez ardiak mendian eta milorriak zertxobait estalirik zeudela...» | (23) |
| mozal 'mordaza' | «...zaldi-hezle zen garaiko ilezko mozalak ...» | (13) |
| mudurri 'malenkoniatsua' | «...edan egiten zuen eta isiltasun muzin eta mudurrian egoten zen...» | (51) |
| muino 'mendixka gaina' | «...Pirinioetako muino leun apaletan, eta Bordelen, gurasoek bidai agentzia bat zeukaten...» | (109) |



| | | |
|---|--|-------|
| muzin 'gozagaitza, iheskaria' | «...eta isiltasun muzin eta mudurrian egoten zen ...» | (51) |
| nano 'epotxa, kakanarrua' | «...bertako zuhaitz bakarrak ipuru nanoak besterik ez ziren.» | (128) |
| nerabe 'gaztea, adoleszentea' | «Nahiz eta aita nerabe bat besterik ez izan azkeneko aldiz hemendik ibili zenean...» | (199) |
| nozitu 'jasan, pairatu' | « Nozitzen hemen hasi zinelako izango da.» | (65) |
| oinatz 'oin arrastoa, marka' | «Dozenerdiren bat kilometro egin ondoren, huts egin zuelako ondoriora iritsi zen, eta kamioitik irten zen oinatzen bila.» | (24) |
| ondozkatz 'segida, jarraipen' | «Gero, ondozkatz e bizkorrean, beste mendi-katea batzuk eta basamortu gehiago ikusi genituen...» | (63) |
| orga 'gurdi tankerakoa' | «Eta halere ez zion inori ezer esan eta kanpora irten eta arrastaka orga baten azpian sartu zen.» | (40) |
| orpo 'aztala, oinaren atzekaldea' | « Orpoetan , intzirika ekin zion Barbok...» | (17) |
| oturuntz 'jan-edana' | «Lore ugari izan zen eta elizkizunaren ondoren, oturuntza eskaini zen...» | (116) |
| ozta-ozta 'justu-justu' | «...aitaren bi zaldiak erabat elbarriturik zeuden eta ozta-ozta hurbiltzen ziren herrenka ura edatera...» | (25) |
| oztopoka 'behaztopaka' | «...aita (...) nekearen nekeaz oztopoka iritsi zen.» | (14) |
| pairamen 'pairua, jasankortasuna' | «Ezin sinetsizko pairamena zuten, gorputzadar sendoak eta larru zailduzko hankak...» | (128) |
| patu 'zoria, destinoa' | «Jakina, honek esan nahi zuen trajearen patua kaxan gordeta egotea izango zela...» | (71) |
| saia 'putrea' (Txori mota) | «...jakina, saiak , inguruan hegazka, bertan egoteak zer esan nahi zuen ere ohartu huen.» | (172) |
| saretu 'sare gisa jarri, zarratu' | «...zelai berdeen zatiak ikusten hasi ginen saretzen ari ziren hodeien artetik.» | (99) |
| senetik atera 'bere onetik atera' | «...esan zigun tiro bat emateko gogoia sentitu zuela arratsalde batez (...) ardiak izutu eta senetik atera zizkion inozo arraioren bati...» | (25) |
| setati 'tematia, hisiatia' | «...burugogorkeria setatiz saihesten nituen neure baitatik pentsamendu beltzak...» | (193) |
| sor eta lor 'zur eta lur' | «Barre-algaraka hasi ginenean, sor eta lor begiratu zigun...» | (35) |
| sorgor 'geldierazlea, beldurgarria' | «...lasterka zihoazen zaldi-aztalen hots sorgorra ekarri zigun haizeak.» | (17) |
| sorgortu 'paralizatu, ezindu' | «... sorgorturik baleuka bezala, azalari zimiko eginez...» | (36) |
| sos 'dirua, txanpona' | «...eta inoiz ez zuen aurreratu sos bakar bat ere...» | (51) |
| soto 'upelategia' | «Postrea iristean, Mauricek hain txanpain zaharra ekarri zuen sototik ...» | (115) |
| suge-koskabilo 'suge-zintzarria' | «...tamaina desberdinetako suge-koskabilo batzuk...» | (72) |
| suharki 'gartsuki, biziki' | «Puertorrikotarrak suharki hitzean zuen.» | (90) |
| sukalketa 'sukaldaritzea' | «...gurasoen era zaharrera sukalketan egin eta afalostean...» | (83) |



| | | |
|---|--|-------|
| teinkatu 'tentsioan jarri' | «Uste dut horrelakoak gertatzen direla —betoskoko marrak ez ziren hain teinkatuak nabarmendu.» | (127) |
| tirandura 'tentsioa' | «...orduak hasi ziren tirandurak baretzen.» | (110) |
| topo egin 'topatu, idoro' | «Renon topo egin eta ezkondu zen aitarekin...» | (21) |
| troka 'sakonunea' | «Piska batean, tarteka, troketan barrena bidea laburtuz gentozela...» | (17) |
| tronpoiloa 'bultoa' | «...trajepean nabarmentzen ziren tronpoiloak izan ziren.» | (72) |
| trostan 'trotean, harrapaladan' | «...atera nian erriflea zorrotik eta trostan jaitsi ninduan muinotik.» | (167) |
| tupikia 'kobrea' | «...baina artean ageri ziren tupikizko bertz handiak...» | (123) |
| txalma 'garraiorako aparailua' | «...aspaldiko denboretako kartutxu-gerrikoa, txalma zahar bat...» | (13) |
| txilin 'kanpai txikia' | «...une batez haren barre alaia entzun genuen geure atzetik, gauean, txilink bailiren.» | |
| txirikordatu 'bata bestean kiribildu,trentzat | «...larru gordinezko hede txirikordatuak aurki zitezkeen...» | (13) |
| txitean-pitean 'sarritan, behin eta berriro' | «...neska txitean-pitean gorritu eraziz.» | (124) |
| txutxuputxuka 'ahapeka, marmarka' | « Txutxuputxuka baina irmetasunez "Ez" esan nion.» | (181) |
| ulu 'oihua, garrasia' | «Ez dakit zer espero zuten, (...) edota amerikar filmetan entzunak zituzten bezalako ulu sarkor horietako bat...» | (110) |
| umo 'heldua, ondua' | «...fruitu umoak ematera iritsi zen.» | (8) |
| urrrin 'lurrina' | «... urrrin gozoa atseginez arnastu eta gero bideari jarraitzen zitzaizkion irribarrea ezpainetan zutela.» | (153) |
| uzkurtasun 'atzera egitea, uzkurdura' | «...aitak planak burutzeko itxuraz ageri zuen uzkurtasunera ...» | (39) |
| uzkurtu 'bildu, plegatu' | «...azkenean etsipenez bezala sorbaldak uzkurtu eta bere istoriari ekin zion.» | (67) |
| uzu 'izutia, ikaratia' | «Gaztea eta uzua zen, gizartearen berri handirik gabea...» | (32) |
| xahako 'zahatoa, ardo bota txikia' | «Hedatu zuen lurrean mihise lauki garbia eta xahakoa .» | (31) |
| xalo 'xumea, xehea' | «...bazuen zerikusirik egun batez galdera xalo bati eman zion erantzunarekin...» | (120) |
| xukatu 'lehortu, sikatu' | «...eta bertan egiteko horretarako zegoen toaila bakarrak xukatu genituen.» | (123) |
| zamari 'zamaberea, zamak eramatekoa' | «...eta behor zamariak ezin izan zian iraun eta tiro bat eman behar izan nion gajoari...» | (63) |
| zantar 'zikina, ezatsegina' | «Hitzegitean ez duzu erabiltzen han esaten den hitz zantarrik .» | (124) |
| zantzu 'aztarna, seinalea' | «...ez zuen gutuna ona ala txarra zen zantzurik erakutsi.» | (32) |
| zarba 'zuhaitz abarra' | «...lonazko ohea izaten zuen adar eta zarbazko lastairarekin...» | (12) |



| | | |
|---|--|-------|
| zarramaltza 'nahaspila' | «... zarramaltzan bira eginik, ihesari eman nahi izan zioten.» | (30) |
| zatal 'pusketa, zatia' | «...lehen zatala ebaki baino lehen.» | (31) |
| zehaldoka 'zalantzaka' | «Brucek jaregin nire eskuari eta zehaldoka aldapan gora ekin zion berarengana» | (31) |
| zela 'zaldietarako jarlekutxo' | «Oraindik ere zela batean baleude bezain tente ibiltzen dira» | (13) |
| zeta 'ehun mota, seda' | «...gainerakoak, zeta beltzezko zapi bat izan ezik, behin eta berriz lepoan jarri eta kendu erabili zuena, larruzkoa zirudien.» | (130) |
| zidor 'bidexka' | «...bi zidor gurutzatzen ziren gunean.» | (121) |
| zigilatu 'zigilua ezarri, finkatu' | «Eta bere erabakia zigilatze ko bezala...» | (35) |
| zimiko 'eztenkada, ziztada' | «Beste behin kontzientziaren zimiko berri bat sentitu nuen...» | (16) |
| zirimola 'haizaldia, haize zurrunbiloak' | «...orain altuera handian gindoazen hegaz eta zirimolak nabarmenago sentitzen ziren.» | (67) |
| zirkin 'mugimendua' | «...fakzio zurrunak, zirkinik gabeak zituen, indio zahar batenak bezelakoak.» | (62) |
| zola 'zorua' | «Lurrezko zola zuen ikuilu zaharrea geunden...» | (52) |
| zur eta lur 'sor eta lor, zeharo harrituta' | «Une batez, saltzailea zur eta lur geratu zen...» | (55) |
| zuraje 'zuraia, zurezko estruktura' | « Zurajetzat behinola eskualdeko hotel zaharra eraiki zuten ohol eta habeak erabili zituen...» | (27) |
| zurruntasun 'gogortasuna' | «...bere zurruntasuna eta izerdiak hegaletaraino hartua baitzeukan.» | (52) |
| zurturik 'harriturik' | «Erabat zurturik begiratzen zigun...» | (79) |
| zuzpertz 'bizkortu' | «Eta zuzpertz en ongi ari bazen ere eta mendian egoteko sasoi onean...» | (39) |